

## ZENTROKO PERTSONALA

Arduraduna: Lourdes Larraza. Egunero izaten da bertan.

Maila ertaineko Teknikari laguntzailea: Elena Chavarri. Egunero izaten da bertan.

EUD: Ana I. González. Goizez izaten da bertan astean hirutan.

Zentroko Medikuak: Zubillaga Dk. eta Sistiaga Dk. Egunero izaten dira bertan.

Neurologoa: Zabalza Dk. Hamabostean behin etortzen da.

Zuzeneko Arretarako Pertsonala. 10 laguneko etxebizitza bakoitzean 3 txanda izaten dira eta horietako bakoitzean 2 zaintzaile, guztira 6 pertsona dira eta goizeko astea, arratsaldeko astea eta aste librea egiteko antolatzen dira. Aldi baterako egonaldietako etxebizitzan ere 3 txanda egiten dira eta horietako bakoitzak zaintzaile bat du.

Gaueko pertsonala: guztira 4 pertsona dira gaueko bi txanda horiek osatzen dituztenak. Gauero 22:00etatik 8:00etara bi pertsona izaten dira zentroan, bertan daudenei arreta eskaintzeko.

Abisu-sistema bat dute eta bertan dauden pertsonen hotsak eta mugimenduak detektatzen ditu eta zein gelatan sortu diren adierazten du, arreta non eskaini behar duten errazago jakiteko.

Sukalde-zerbitzua: bazkariak eta afariak Zentroko sukaldean prestatzen dira. Bi sukaldari daude txandakako zerbitzuan. Gosariak eta meriendak etxebizitzetan dauden officeetan prestatzen dira.

Garbiketa Zerbitzua: 4 pertsona daude txandakako lanean eta Zentroko garbiketaz arduratzen dira.

Mantentze-lana: astean bitan izaten da bertan.

# ULIAZPI

## CENTRO ATEGORRIETA

Avda. Alcalde José Elosegui, 22

20013 Donostia-San Sebastián

Teléfono: 943 293 800



# ULIAZPI



Ategorrieta Zentroak 5 solairu ditu:

**Behe-solairua:** Aldi baterako egonaldiatarako 6 leku dituen etxebizitza. Solairu horretan bertan daude baita ere sukaldea, biltegiak, aldagelak, eta abar.

**1 solairua:** Eguneko Zentroa dagoena da. Astelehenetik ostiralera izaten gara hemen 10:30etik 13:00etara eta 15:30etik 17:30era.

**2 eta 3 solairuak:** solairu bakoitzean 10 lagun hartzeko etxebizitzak, horiek etenik gabe egoten dira gurekin.

**4 solairua:** Eraikinaren terraza da. Lorategirako altzariak ditu eta koina. Uda garaian jarduerak terrazan egiten dira.



## JARDUERAK

Bai goizez eta bai arratsaldez jarduera desberdinak egiten dira Zentroaren barruan eta kanpoan. 4 gune ditugu: Fisioterapia-gela, zentzumenen estimulaziorako aretoa, ikus-entzunezkoen aretoa eta eskulantzarako eta laneko zereginetarako tailerra.

Zentroaren barruan pertsonal teknikoarekin egiten diren jarduerak: zentzumenen estimulazioa, musikoterapia eta fisioterapia.

Beste jarduera batzuk: Eskulanak, laneko zereginak, ikus-entzunezkoak, masajeak eta estetika pertsonala, estimulazioa, motrizitatea, eta abar.

Zentrotik kanpo egiten diren jarduerak: Igeriketa eta kirol egokitua kiroldegian, igeriketa egokitua Donostia Zentroan, hipika, irteerak erkidegora, ibilaldiak hirietatik eta herrietatik barrena, festak, eta abar.